



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilak 8

Vitoria-Gasteiz, 8 de enero de 2019

Lehendakaritza

**EUSKO JAURLARITZAK 34.000 ENPLEGU SUSTATU DITU XI.
LEGEGINTZALDIAREN LEHEN ERDIAN, ETA, HORIETATIK, IA ERDIA
GAZTEENTZAT IZAN DA**

- **Gobernu Kontseiluak “Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren Esparru Programa, 2017-2020”ren segimendu- eta ebaluazio-dokumentua aztertu du**
- **2019ko urtarrilean, 4.272 milioi euro bideratu dira enplegua sustatzera eta ekonomia suspertzera, eta ezarritako helburu globalen bi heren baino gehiago bete dira**
- **40 proiektu estrategikoetatik 35 martxan dira eta 1.139 milioi euroko aurreikuspen ekonomikoa dute 2017aren eta 2020aren artean**
- **Eusko Jaurlaritzak legegintzaldiko helburu estrategiko gisa 20.000 gazteri lehen lan-esperientzia eskaintzea eta langabezia-tasa % 10etik beherakoa izatea ezarri zituen (gaur egun % 9,5ekoa da)**

Eusko Jaurlaritzak XI. legegintzaldiko lehen bi urteetan 34.015 enplegu sustatu ditu; horietatik, 16.321 (% 48) enpleguren bidez lehen lan-esperientzia eman zaie euskal gazteei. Datu horiek “Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren Esparru Programa, 2017-2020”ren segimendu- eta ebaluazio-dokumentutik atera dira; dokumentua Lehendakariak aurkeztu dio, gaur goizean, Gobernu Kontseiluari. 2018ko urtarrilean, legegintzaldirako ezarritako helburu globalen bi heren baino gehiago lortu dira, eta 4.272 milioi euro 2017aren eta 2018aren artean. Programa horrek, halaber, herrialdeko 40 proiektu estrategikotan inbertsioak aurreikusten ditu; horietatik, 35, dagoeneko, martxan dira.

Programa 2017ko martxoan aurkeztu zen, eta helburu du euskal enpresen lehiakortasuna sendotzea, eta berreskuratzea enplegu gehiagoren eta kalitate hobearen bidez gauzatea. Herrialdeko helburu gisa, langabezia % 10etik behera murriztea nabarmendu zen (gaur egun % 9,5ean dago), bai eta 20.000 gazteri lehen lan-esperientzia ematea ere. “Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren Esparru Programa, 2017-2020” programa 2 ardatz nagusitan egituratzen da: Enplegua eta Inbertsioaren, Berrikuntzaren, Nazioartekotzearen eta Industrializazioaren Estrategia. Programa honetarako 2020ra arte aurreikusitako baliabideak 8.800 milioi eurokoak dira. Lehendakariak Gobernu Kontseiluan gaur aurkeztu duen dokumentua emaitzen aurrerapena da; izan

ere, behin betiko bertsioa martxoan eskuratuko da, aurrekontuaren betearazpeneko datuekin.

2017-2018 INPAKTUAREN EMAITZA

Azken bi urteotan Programak izan duen inpaktua honako adierazle hauen arabera laburtu daiteke:

- 34.015 enplegu sustatu dira
- 16.321 gaztek lehen lan-aukera izan dute
- 3.593 enpresa berri sortu dira
- lkerketako 67 proiektu estrategiko
- 677 ETEk jo dute kanpo-merkatuetara
- 1294 ETEk (industrialak) jaso dute laguntza beren modernizazio- eta hedapen-proiektuetan.
- 2.976 ETEk berrikuntza-proiektuak garatu dituzte
- Inbertsioko 35 proiektu estrategiko jarri dira martxan

Gazte-enplegua

Politika horiek gazte-enpleguan izan duten inpaktuari buruzko datuetik honako hauek nabarmendu behar dira: hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko esparruan sortutako lanpostuak (6.908); edo tokiko eta eskualdeko planen ondoriozkoak (1.664); edo Lehen Aukera programakoak (780).

Enpresen lehiakortasuna

Sustatutako enpleguen artean, honako hauek daude: enpresa berriak sortzearen ondoriozkoak (8.509), kontrataziorako pizgarrien bidez sortutakoak (10.457) edo lan-eskaintza publikoetan jasotako plazak (8.583). Nabarmentzekoak dira, halaber, mikroekintzaitzak (3.001) eta enpresa berritzaileen kopurua (592).

INBERTSIOA 40 PROIEKTU ESTRATEGIKOTAN

Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren Esparru Programak 40 proiektu estrategikotarako inbertsioak aurreikusten ditu, 1.100 milioi eurotik gora. 40 proiektu horietako 35, dagoeneko, martxan daude. Proiektu horiek honako eremu hauetakoak dira:

- Azpiegiturak eta mugikortasuna: teknologia-parkea handitzea Ezkerraldean, AHT, Jundizko Plataforma Logistiko Multimodala, Donostialdea trenbide laguntzailea...
- Hiri-berroneratzea eta ingurumena: Koroatze auzoa berroneratzeko lanak amaitzea; Gasteizko egokitzapen hidraulikoa, Urumea bideratzeko lanak, Pasaiaiko Portua birgaitzeko lanak...

- Hezkuntza-azpiegiturak: ikastetxe berriak Bizkaian (Bilbo, Gueñes eta Basauri); Gipuzkoan (Bergara, Zestoa eta Zumaia) eta Araban (Salburua eta Zabalgana).
- Osasun-azpiegiturak: osasun-zentro berriak Gipuzkoan (Alde Zaharra eta Aiete), Araban (Amurrio, Kanpezu eta Murgia) eta Bizkaian (Zalla), ospitale-azpiegitura berriak...

2018ko segimendu-dokumentu osoa

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

BASQUE RESEARCH AND TECHNOLOGY ALLIANCE-BRTA ERAKUNDEAREN ESTATUTUAK ONARTU DITUZTE

- Eusko Jaurlaritzak, SPRI-k, Foru Aldundiek, zentro teknologikoek eta ikerketa kooperatiboko zentroek partzuergoa eratzeko hitzarmena sinatuko dute aurki
- BRTA Partzuergoak Euskadiko erronka teknologiko eta industrialei erantzungo die, eta Euskadik nazioartean duen lekua hobetuko du

Gobernu Kontseiluak Basque Research and Technology Alliance (BRTA) izeneko Partzuergo Zientifiko-Teknologikoaren estatutuak onartu ditu. Partzuergoa 2019ko lehen hiruhilekoan eratuko da, eta SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia, 12 zentro teknologiko, ikerketa kooperatiboko 4 zentro eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak izango ditu atxikita.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren azpisektore teknologikoa berrantolatzeke prozesuaren eta ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuan jasotako finantzaketa-programa publikoen helburua baliabideen efizientzia handitzea eta produkzio- eta gizarte-sareari balioa emango zioten emaitzetara bideratzea zen.

Handik bi urtera, sistemak oro har lortutako emaitzak positiboak izan dira (behar bezala neurtu eta egiaztatu dira), eta sistema optimizatzeko prozesuaren barruan aurki BRTA izeneko eratzeari aurreikusitako da, hau da, Euskadiko erronka teknologikoari eta industria-erronkei aurre egiteko eta Euskadik nazioartean duen lekua hobetzeko lankidetzaren dinamika ziurtatuko duen izaera publikoko entitate berri bat, gaur egun Europar Batasuneko berrikuntza-maila handiko eskualdeen taldean kokatuta gaudela kontuan hartuta.

Orain arte aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Orokorrarekin batera eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren bitartez, entitateak honako hauek izango ditu atxikita: Spri, Azterlan, CEIT, Cidetec, Gaiker, Ideko, Ikerlan, Lortek, Tecnalia, Tekniker, Vicomtech, Azti, Neiker zentro teknologikoak, CICbioGune, CICbiomaGUNE, CICenergiGUNE eta CICnanoGune ikerketa kooperatiboko zentroak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Enpresa-sareari ezagutza bermatzeko koordinazio handiagoa

BRTA Partzuergoaren funtzio nagusiak honako hauek izango dira: Partzuergoari atxikiko zaizkion agente teknologikoen koordinazioa sustatzea, haien jarduerak uztartzea eta bateragarri egitea, ezagutza sortzeko eta

enpresei helarazteko baldintzak sendotzea, eta eremu teknologikoan nazioarteko proiektzioa izango duen marka propio bat bultzatzea.

BRTA Partzuergoa Ikerketa Agenda bat eta Transferentzia eta Merkatu Agenda bat egiteaz arduratuko da, Partzuergoa osatzen duten agenteen unitateekin koordinatuta.

Gobernu-egitura eta gobernu-organoak

Gobernu-organoak Batzar Nagusi batez osatuta egongo dira, presidentetzarekin eta presidenteordetzarekin.

Kudeaketa- eta zuzendaritza-organoak Batzorde Teknikoak eta Zuzendaritza Nagusiak osatuko dituzte, eta bi aholku-organo egongo dira, Batzorde Zientifiko-Teknologikoaz eta Industria Batzordeaz osatuak.

Batzar Nagusia Partzuergoaren gobernu-organo gorena izango da, eta agente guztiak egongo dira ordezkaturik bertan. Ordezkaritza Partzuergoa finantzatzeko egindako urteko ekarpenaren proportziozkoa izango da.

Bi urteko gehieneko epean, ospe handiko adituez osatutako Nazioarteko Adituen Aholku Batzorde batez hornituko da BRTA Partzuergoa.

Eraketa, aurrekontua eta egoitza

Aurreikusitakoaren arabera, BRTA Partzuergoa urteko lehen hiruhilekoan eratuko da, eta Mendaroko Kurutz-Gain Industrialdean izango du egoitza. Hasierako aurrekontuari dagokionez, Administrazio Orokorrek 500.000 euroko ekarpena egingo du, SPRIk 100.000 euroko ekarpena, eta agente teknologikoen 400.000 euroko ekarpena.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO HA INCENTIVADO 34.000 EMPLEOS EN EL ECUADOR DE LA XI LEGISLATURA DE LOS CUALES CERCA DE LA MITAD HAN SIDO PARA JÓVENES

- El Consejo de Gobierno ha analizado el documento de seguimiento y evaluación del Programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica 2017-2020
- A fecha de enero de 2019 se han destinado 4.272 millones de euros al fomento del empleo y a la reactivación económica y se han alcanzado más de dos tercios de los objetivos globales establecidos
- 35 de los 40 proyectos estratégicos señalados están en marcha y tienen una previsión económica de 1.139 millones de euros entre 2017 y 2020
- El Gobierno Vasco marcó como objetivos estratégicos de legislatura ofrecer una primera experiencia laboral a 20.000 jóvenes y establecer la tasa de desempleo por debajo del 10% (actualmente es del 9,5%)

El Gobierno Vasco ha incentivado en los dos primeros años de la XI Legislatura 34.015 empleos, de los cuales 16.321 (48%) han servido para ofrecer una primera experiencia laboral a jóvenes vascos. Son datos que se desprenden del documento de seguimiento y evaluación del Programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica 2017-2020 presentado esta mañana por el Lehendakari en el Consejo de Gobierno. A fecha de enero de 2018, se han logrado más de dos tercios de los objetivos globales establecidos para la Legislatura y 4.272 millones de euros entre 2017 y 2018. Este programa prevé también inversiones en 40 proyectos estratégicos de País, de los cuales 35 ya están en marcha.

El programa se presentó en marzo de 2017 y busca reforzar la competitividad de las empresas vascas, así como lograr que la recuperación se materialice en términos de más empleo y de mejor calidad. Se destacó reducir el paro por debajo del 10% (actualmente se encuentra en el 9,5%) y ofrecer una primera experiencia laboral a 20.000 jóvenes, como objetivos de País. El programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica 2017-2020 está estructurado en 2 grandes ejes: Empleo y Estrategia “4I” (Inversión, Innovación, Internacionalización e Industrialización). Los recursos estimados para este programa hasta 2020 ascienden a un total de 8.800 millones de euros. El

documento presentado por el Lehendakari en el Consejo de Gobierno de hoy es un avance de los resultados ya que la versión definitiva se obtendrá en marzo, con los datos de ejecución presupuestaria.

RESULTADO DE IMPACTO 2017-2018

El impacto del Programa en los dos últimos años se resumiría en los siguientes indicadores:

- 34.015 empleos incentivados
- 16.321 jóvenes han tenido una oportunidad laboral
- 3.593 nuevas empresas creadas
- 67 proyectos estratégicos de investigación
- 677 PYMEs han accedido a mercados exteriores
- 1294 PYMEs (industriales) han sido apoyadas en sus proyectos de modernización y extensión.
- 2.976 PYMEs han desarrollado proyectos de innovación
- 35 proyectos estratégicos de inversión en marcha

Empleo juvenil

De los datos sobre el impacto de estas políticas en el empleo juvenil, destacan los puestos de trabajo generados en el marco de la transición del mundo educativo al laboral (6.908); o los derivados de Planes Locales y Comarcales (1.664) o del Programa Lehen Aukera (780).

Competitividad de las empresas

Entre los empleos incentivados constan los derivados de la creación de nuevas empresas (8.509), de los generados a través de incentivos de contratación (10.457) o las plazas incluidas en las diversas Ofertas Públicas de Empleo (8.583). Destacan también, los microemprendimientos (3.001) y el número de empresas innovadoras (592).

INVERSIÓN EN 40 PROYECTOS ESTRATÉGICOS

El Programa Marco por el Empleo y la Reactivación Económica prevé inversiones para 40 proyectos estratégicos por un importe superior a los 1.100 millones de euros. 35 de los 40 proyectos ya están en marcha. Lo ámbitos en los que se enmarcan esos proyectos son:

- Infraestructuras y movilidad: ampliación del Parque Tecnológico en la Margen Izquierda, TAV, Plataforma Logística Multimodal de Jundiz, Ferrocarril Pasante Donostialdea...
- Regeneración urbana y medio ambiental: culminación de la regeneración del barrio Coronación; acondicionamiento hidráulico en Gasteiz, encauzamiento del Urumea, rehabilitación del Puerto de Pasaia...

- Infraestructuras educativas: nuevos centros educativos en Bizkaia (Bilbao, Gueñes y Basauri); en Gipuzkoa (Bergara, Zestoa y Zumaia) y Álava (Salburua y Zabalgana).
- Infraestructuras sanitarias: nuevos Centros de Salud en Gipuzkoa (Alde Zaharra y Aiete), Araba (Amurrio, Kanpezu y Murgia) y Bizkaia (Zalla), nuevas infraestructuras hospitalarias...

Documento íntegro de seguimiento 2018

Desarrollo Económico e Infraestructuras

APROBADOS LOS ESTATUTOS DEL BASQUE RESEARCH AND TECHNOLOGY ALLIANCE-BRTA

- El Gobierno Vasco, SPRI, las Diputaciones Forales, y los CCTT y CICs firmarán, próximamente, el convenio para la constitución oficial del consorcio
- BRTA responderá a los retos tecnológicos e industriales de Euskadi y mejorará su posicionamiento internacional

El Consejo de Gobierno ha aprobado los estatutos por los que se registrá el Consorcio Científico-Tecnológico, Basque Research and Technology Alliance (BRTA), que se constituirá en el primer trimestre de 2019 con la adhesión al mismo de SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial, 12 Centros Tecnológicos, 4 Centros de Investigación Cooperativa y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

El proceso de reordenación del subsector tecnológico del Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e innovación, así como de los programas públicos de financiación, recogidos en el Decreto 109/2015, de 23 de junio, tenían como objetivo aumentar la eficiencia de los recursos y orientarlos a resultados que ofrezcan valor al tejido productivo y social.

Dos años después, los resultados obtenidos por el conjunto del sistema han sido positivos, -medidos y contrastados-, y el proceso de optimización del sistema prevé la constitución próximamente de BRTA, un nuevo ente, de naturaleza pública, que asegure la dinámica de cooperación para atender los retos tecnológicos e industriales de Euskadi y mejorar su posicionamiento internacional, teniendo en cuenta que a día de hoy, nos situamos ya en el grupo de regiones de alta innovación de la Unión Europea.

Hasta el momento, junto con la Administración General, a través del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, se prevé la adhesión de Spri, los centros tecnológicos Azterlan, CEIT, Cidetec, Gaiker, Ideko, Ikerlan, Lortek, Tecnalia, Tekniker, Vicomtech, Azti, Neiker, CICbioGune, CICbiomaGUNE, CICenergigUNE, CICnanoGune, así como las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

Mayor coordinación para garantizar conocimiento al tejido empresarial

Las funciones principales del Consorcio BRTA será fomentar la coordinación de los agentes tecnológicos que se adhieran a la alianza; alinear y compatibilizar

sus actividades; reforzar las condiciones para generar y transmitir conocimiento a las empresas, y proyectar en el ámbito tecnológico, una marca propia de proyección internacional.

BRTA se encargará de formular una Agenda de Investigación y una Agenda de Transferencia y de Mercado, en coordinación con las diferentes unidades de los agentes que conforman en consorcio.

Estructura y órganos de gobierno

Los órganos de gobierno se compondrán de una Asamblea General, con una presidencia y una vicepresidencia.

Unos órganos de gestión y dirección, representados por un Comité Técnico y una Dirección General, y dos órganos de asesoramiento representados por una Comisión Científico-Tecnológica y una Comisión Industrial.

La asamblea General es el órgano supremo del gobierno del Consorcio en la que estarán representados todos los agentes y la representación será proporcional a la aportación anual realizada para la financiación del consorcio. En el plazo máximo de dos años, BRTA se dotará de un Comité Asesor de Expertos Internacionales formado por persona expertas de reconocido prestigio.

Constitución, presupuesto y sede

La constitución de BRTA está prevista para el primer trimestre de año con sede en el Polígono Industrial Kurutz-Gain de Mendaro, y con un presupuesto inicial de 500.000 euros que aportará la Administración General, 100.000, por parte de Spri, y 400.000 a financiar entre los agentes tecnológicos.